BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

2327

EBAZPENA, 2012ko maiatzaren 10ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena, Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzaren eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen arteko kudeaketa-gomendioko hitzarmena argitaratzea xedatzen duena.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzak eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak 2012ko maiatzaren 8an hitzarmen bat izenpetu zuten. Hitzarmen horren bidez gomendatzen da IVAPek bere gain har dezan Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko otsailaren 10eko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozeduretako oposaketa-aldiko lehen probaren A eta B zatiak garatzeko behar diren jarduketen kudeaketa materiala. Agindu horren bidez, dei egiten zen Euskal Autonomia Erkidegoko Maisu-maistren, Lanbide Heziketako irakasle teknikoen, Bigarren Hezkuntzako irakasleen, Hizkuntza Eskola Ofizialeko irakasleen eta Musika eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoetan sartzeko hautaketa-prozedurarako eta Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko funtzionarioentzako espezialitate berriak hartzeko prozedurarako (2012ko otsailaren 15eko EHAA, 33. zk.).

Hitzarmena ebazpen honen I. eranskinean argitaratzea ebatzi da, jende guztiak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko maiatzaren 10a.

Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea,
MARÍA SOLEDAD ESTEBAN GALARZA.

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILAK ETA HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEAK SINATUTAKO KUDEAKETA-GOMENDIOKO HITZARMENA

Vitoria-Gasteiz, 2012ko maiatzaren 8a.

BILDURIK:

Alde batetik, María Soledad Esteban Galarza, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea, eta, bestetik, Encarnación Echazarra Huguet, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria.

ADIERAZTEN DUTE:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitatekoez kanpoko Irakaskuntzarako Irakasleen Kidegoei buruzko otsailaren 19ko 2/1993 Legearen 4. artikuluak dioenez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari dagokio «karrerako irakasle funtzionarioa edo lan-legepeko behin betiko irakaslea izan ahal izateko hautaproben oinarri-arauak, egitarauak eta edukiak finkatu, deialdiak egin, proben epaimahaikideak izendatu eta probak gainditu dituztenak izendatu eta lanpostua ematea edo, hala behar badu, kontratatzea».

Bigarrena.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren egitura organikoa ezartzen duen irailaren 14ko 233/2010 Dekretuaren 10.a) artikuluak dioenez, Langileria Kudeatzeko Zuzendaritzak «Saileko kolektiboetako karrerako funtzionarioak edo lan-kontratuko langile finkoak kontratatzeko hautespen-probetako oinarri-arauak, programak eta edukiak finkatuko ditu. Bere ardura izango da, baita ere, proba horiek kalifikatuko dituen epaimahaia izendatzea eta hautespen-prozesua antolatzea eta kudeatzea. Halaber, bere ardura izango da proba horiek kalifikatuko dituen epaimahaia izendatzea eta hautespen-prozesua antolatzea eta kudeatzea».

Hirugarrena.– Justizia eta Herri Administrazioko sailburuak, 2011ko abenduak 19an emandako Aginduaren bidez (2011ko abenduaren 30eko EHAA, 247 zk.), Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioko lan-eskaintza publiko hau onartu zuen 2011-2012 ikasturterako:

ERANSKINA

Euskal Autonomia Ekidegoko Maisu-maistren Kidegoa	161
Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoa	328
Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoa	36
Hizkuntza Eskola Ofizialetako irakasleen kidegoa	2
Musika eta Arte Eszenikoko irakasleen kidegoa	4
Hezkuntzako ikuskarien kidegoa	25

Laugarrena.– Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legeak 61.4 artikuluan ezartzen duenez, «Herri Administrazioek organo espezializatuak eta iraunkorrak eratu ahal izango dituzte hautaketa-prozesuak antolatzeko, edo Herri Administrazioen Institutu edo Eskolen esku utzi ahal izango dituzte zeregin horiek».

Bosgarrena.– Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legeak hautaketa-probak homogeneizatzeko zeregina esleitu zion Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari, bai epaimahai kalifikatzaileen osaketan nahitaez parte hartuz, bai, batez ere, legeak berak 29. artikuluan herri administrazioei ematen dien aukera –langileen hautaketa erakunde autonomiadunaren bitartez egitea– erabiliz.

Seigarrena.– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen egitura eta eginkizunak arautzen dituen urriaren 14ko 241/2003 Dekretuak ere ideia hori berresten du, izan ere, 2.b) artikuluan, erakundearen helburuen artean, honako hau aipatzen du: «Beste administrazio publiko batzuetako langile publikoak hautatzea, administrazio horiek berek eskatzen badiote, eta euskal administrazio publiko guztiek sustatutako hautaketa-prozesuetako epaimahaietan parte hartzea, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeko 31. artikuluan jasotakoaren arabera».

Zazpigarrena.– Hori guztia ikusita, eraginkortasun-arrazoiengatik, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzak eskatu egiten dio Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari bere gain har dezan Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko otsailaren 10eko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozeduretako oposaketa-aldiko lehen probaren A eta B zatiak garatzeko behar diren jarduketen kudeaketa materiala (Agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Maisu-maistren, Lanbide Heziketako irakasle teknikoen, Bigarren Hezkuntzako irakasleen, Hizkuntza Eskola Ofizialeko irakasleen eta Musika eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoetan sartzeko hautaketa-prozedurarako eta Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko funtzionarioentzako espezialitate berriak hartzeko prozedurarako deialdia egin zen; 2012ko otsailaren 15eko EHAA, 33. zk.). Beraz, esparru horretan, erakunde biek kudeaketa-gomendioko hitzarmen bat sinatzea erabaki dute, beti ere 30/1992 Legearen 15. artikuluaren arabera.

KLAUSULAK

Lehenengoa.– Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 15. artikuluan xedatutakoari jarraituz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Administrazio eta Zerbitzuetako Sailburuordetzak eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak hitzarmena egitea erabaki dute. Horren bitartez, eraginkortasun arrazoiengatik, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak bere gain hartzen du Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko otsailaren 10eko Aginduan jasotako hautaketa-prozedurako oposizio-aldiko lehen probaren A eta B zatiak garatzeko behar diren operatibaren

kudeaketa materiala (agindu horren bidez, dei egin zen Euskal Autonomia Erkidegoko Maisu-maistren, Lanbide Heziketako irakasle teknikoen, Bigarren Hezkuntzako irakasleen, Hizkuntza Eskola Ofizialeko irakasleen eta Musika eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoetan sartzeko hautaketa-prozedurarako eta Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko funtzionarioentzako espezialitate berriak hartzeko prozedurarako; 2012ko otsailaren 15eko EHAA, 33. zk.).

Bigarrena.– kudeaketa materialerako gomendio honetan, jarduera hauek sartuko dira, kasu bakoitzean zehazten den neurrian:

a) Lokalen kontratazioa kudeatzea.

b) Lokalak behar bezala hornitzea, hautatze-prozedurako lehen probaren A eta B zatiak egiteko.

c) Hautaketa-prozesu jendetsu bat behar bezala burutzeko behar diren jarduketa guztiak: mediku-arreta, polizia-zaintza, urrituen arreta,...

d) Hautaketa-prozesuaren oposizio-aldiarekin lotutako beste edozein kudeaketa-lan, betiere, eskumenaren titulartasuna aldatzen ez bada eta, eskumen hori gauzatzean, funtsezko elementuak aldatzen ez badira.

Hirugarrena.– Gomendio honen helburu den kudeaketa materialak sortzen dituen gastuak Hezkuntza, Unibertsitatea eta Ikerketa aurrekontu-atalaren kontura izango dira.

Laugarrena.– Hitzarmen hau sinatzen denean jarriko da indarrean, eta amaitu, berriz, arestian adierazitako 2012ko otsailaren 10eko Aginduaren bidez onartutako hautatze-prozeduratik datorren oposaketa-aldiko lehen probaren A eta B zatiak burutzean.

Bosgarrena.– Kudeatzeko gomendioa sinatzeak ez du esan nahi eskumenen titulartasuna lagatzen denik edota, eskumen horiek gauzatzean, funtsezko elementuak lagatzen direnik, horiek denak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzak baititu esleituta.

Seigarrena.– Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzaren erantzukizuna da izaera juridikoko ebazpenak edo egintzak ematea, kudeatzeko gomendio honen xedea den jarduera material zehatzaren euskarri izan daitezen edo jarduera bera ebazpen edo egintza horietan integra dadin.

Alderdi biak agiri honen edukiarekin ados daudenez, eta horrela jasota gera dadin, Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeak eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariak kudeaketa-gomendioa formalizatzeko tresna hau sinatzen dute.

Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea,
MARÍA SOLEDAD ESTEBAN GALARZA.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria,
MARIA ENCARNACIÓN ECHAZARRA HUGUET.